

## ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

### 1. artikulua.- Xedea

Zarauzko hondartza herriaren iparraldean dago. Honako mugak ditu: ekialdera, Talaimendiko mendi-hegaleko labarrak; mendebaldera, N-634 errepidea (Elkano bidea) eta moila; eta hegoaldera, Itsasertzeko pasealekua eta "Mendilabeta" duna-multzoa (zurezko itxitura duena, eta zurezko habeez osatutako oinezkoen bandak zeharkatzen duena).

Hondartza itsasorantz zabaltzen da, Bizkaiko golkorantz, eta hondar xeheko hareatza soltea du, mendebaldetik Alle eta ekialdetik Iñurritzako Aizleun tontorren artean.

Hondartzak eragin atlantikoa du; forma aldetik aldakorra da, iraungiorra eta hondar-metakorra da. Hondartza osoan indar desberdinetako zurrunbiloak sortzen dira.

Marea-mugimenduen eragina nabaritzen da, batez beste lau metroko altuera eta itsasbeheraren eta itsasgoraren arteko ehun metroraingo luzerarekin.

Dunak (Aresti kalearen bukaeratik Iñurritza ibaiaren bokaleraino) babestutako biotopo deklaratu daude, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren otsailaren 25eko 40/1997 dekretuaren bidez; eta ingurua babesteko araubide juridiko berezia dago ezarrita.

Adierazitako berezitasunengatik eta hondartza eta moila urtean zehar zenbait jarduera egiteko erabiltzen direla kontuan hartuta, ordenantza hau ezarri da, urtaro desberdinetan herritarrek dituzten premiei behar bezala erantzuteko.

### 2. artikulua.- Orokortasunean.

Itsaso eta lehorraren arteko jabaria Zarauzko udal-mugapearen zati dela kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen da hondartzako erabiltzaileek arau minimo batzuk betetzea, bainularien eta oro har herritar guztien onerako izango baitira.

Horregatik, udal ordenantza honek hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzea du helburu.

Ondorioz, hondartzako erabiltzaileek une oro Ordenantza honetan adierazitakoa bete beharko dute; bai eta aurrerantzean giza bizitzaren salbamendu eta segurtasunari eta aldi baterako instalazioei buruz Udalak denen onerako erabakitzen dituen xedapen guztiak eta zerbitzuen kontzesio eta baimenei dagozkien bestelako arau espezifikoak ere.

Era berean, erabiltzaileek bai uztailearen 28ko 22/1988 Legeak, Itsasertzei buruzkoak, bai beronen Erregelamenduak (abenduarien 1eko 1471/1989 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) ezarritako araubidea bete beharko dute, bai eta garapen-arauak ere, hierarkian ordenantza honen goragoko maila dutelako.

### **3. artikulua.- Antolaketa, zaintza y osasun-laguntza.**

Zaintza eta laguntza zerbitzuak urtero udan egingo dira: oro har ekainaren 1etik irailaren 30era arte egunero.

Hala eta guztiz ere, Udalak, egoki irizten badio, uda bakoitzeko denboraldi ofiziala erabakiko du.

Bainu-denboraldiaren hasiera eta bukaera garaiz jakinaraziko da.

1. Zarauzko hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek ordutegi jakin bat beteko dute, aldeztatik iragarriko dena.
2. Ordutegi horretatik kanpo, bainatu nahi duten pertsonak beren erantzukizunpean egingo dute.
3. Itsasoaren egoera eta, Osasun Sailak ezarritako jarraibideen arabera, uraren osasun-baldintzak kontuan izanik, hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek adieraziko dute bainua baimenduta dagoen ala ez, bai eta bainulariak noraino urrutira daitezkeen ere.
4. Jasotako informazioa baloratu ostean, Udalak hondartza eta, halaber, bainu-guneak zabalik edukiko ditu edo, egoki iritziz gero, itxi egingo ditu.

### **4. artikulua.- Bainua**

Itsasoaren egoera eta uraren kalitatea kontuan hartuta, hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek itsas-bainuen egokitasuna adierazteko ondokoa jarriko dute:

- 1.- Koloretako banderak, esanahi hauekin:

Bandera gorria	BAINUA DEBEKATUTA
Bandera horia	ARRETAZ BAINATU
Bandera berdea	BAINU LIBREA
Bandera gorri/urdina	SURF, BODYBOARD ETA PIRAGUISMOA PRAKTIKATZEKO GUNEA

- 2.- Kartelak, ohar hauekin:

BAINUA – “LIBREA”

BAINUA – “ARRETAZ”

## BAINUA - "DEBEKATUTA"

Bainulariek aurreko seinaleak errespetu beharko dituzte une oro, bai eta zaintza eta laguntza zerbitzuek segurtasunaren alde egin ditzaketen orientabideak eta erakunde eskudunek jada emandako edo gerora eman ditzaketen xedapenak ere.

### 5. artikulua.- Kirolak.

#### 1.- ARAU OROKORRA

Hondartzan kirol jakin batzuk egin ahal izango dira, baldin eta jarduera horrek pertsonentzako arriskurik edo arazorik ez badu, baimendutako bestelako jardueri oztopo egiten ez badie, bainurako mugatuta dauden guneetarako sarbidea eragozten ez bada, eta gune erabilgarriak horretarako bide ematen badu.

Debekatuta daude honako kirol hauek: soka, aingura edo beste edozein motatako loturak behar dituztenak; trakzio mekanikozko edo gurtaberezko kirolak; zaldizkoak, edozein modalitatetan; edo motor-ibilgailuak (autoak, motorrak, quad-ak etab.) eskatzen dituztenak.

Hondartza osoan ezin izango da inolaz ere golfean edo antzekotan jardun, ez eta jaurtiketa-jarduerarik (barra, xabalina, diskoa, etab.) egin ere.

Udalak hondartzan jarduerak antolatu ahal izateko guneak mugatzeko eskubidea izango du.

#### 2.- LURREKO KIROLAK

##### a) Udan

Itsasbeheran, hondartza zabalik egonez gero, zaintza eta laguntza zerbitzuak jardunean daudenean, hondarretan kirola egin ahal izango da, itsasertzeko pasealekuaren ertzetik lehenengo 30 metroetatik kanpora.

Itsasgoran debekatuta dago kirolak (futbol, pilota, pala, etab.) egitea.

Zaintza eta laguntza zerbitzuak amaitu eta gero, arau orokorra aplikatuko da.

"Desertu txikia" izeneko gunean, boleibol, pala, pilota, etab. bezalako kirolak egin ahal izango dira.

##### b) Gainerako urtaroetan

Arau orokorra aplikatuko da.

### 3.- UR-KIROLAK

#### a) Udan

Bandera gorri-urdinez mugatutako guneetan surf, bodyboard eta piraguismo kirolak egin ahal izango dira.

Balizatutako gune guztietan debekatuta dago kirol eta jolas-nabigazioa, bai eta edozein motatako beladun edo motordun ontzi edo flotatzailerik, hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuekin zerikusi dutenak izan ezik.

Itsasoan egiten diren eta trakzio mekanikozko edo haize-trakziozko elementurik behar duten kirol-motak, bai eta bertsio desberdinetako (moto, eski, bela, arraun, etab.) itsasontziak ere, marea-lerrotik 200 metrotik aurrera egin ahal izango dira, hondartzako zaintza, sorospen eta laguntza zerbitzuei lotutakoak izan ezik.

Itsasoan egin baina hondarretatik abiatu eta bertan bukatzen diren kirol-motak (windsurf, eski-surf,...) hondartzaren ekialdeko muturrean egin ahal izango dira: zaintza zerbitzupeko bainu-ordutegiaz kanpora, itsasertzeko pasealekuaren bukaeratik 200 metrotik aurrera eta marea-lerrotik 200 metrora; baldin eta erabilera horiek bestelako jarduerak eragozten ez badituzte.

#### b) Surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatzeko baimenak.

Zarauzko Udalak surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatzeko baimenak eman ahalko ditu, Toki-araubideko legedian jasota dauden zuzeneko edo zeharkako kudeaketa-modu edozeinetan, aldezturik Itsasertzeko Zerbitzu Periferikoaren baimena lortu ondoren, eta arau hauetan aurreikusitakoaren arabera: uztailaren 28ko 22/1988 Legea, Itsasertzei buruzkoa (51. art. eta hurrengoak) eta abenduaren 1eko 1471/1989 Errege-dekretua, aipatutako legea garatu eta burutzeko erregelamendu orokorra onartzen duena (111. art).

Hirugarrenen bidez ustiatzen badira, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagoka printzipioak errespetatuko dira eta deialdi bakoitzaren oinarrietan ezarritako moduan arautuko dira, bertan agertzen diren betekizun eta baldintzak betez.

Halaber, Zarauzko Udalak baimenak eman ahal izango ditu udako denboraldia baino txikiagoak diren aldietarako surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatzeko. Baimen horiek bai zuzenean bai Zarauzko hondartzan zerbitzuak egiten dituzten edota horretarako kontratatzen diren enpresen edo erakundeen bitartez emango ditu Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak ezarritako prezio publikoak aldezturik ordainduta eta, halaber, hark onartutako baldintzetan.

Baimendutako kirol-eskolek edo antzekoek egiten duten jarduera bera, eta baita jarduera hori egiteko materiala alokatzea ere, sasoiko zerbitzutzat hartuko dira. Horregatik, bete-betean aplikatuko zaie Itsasertzei buruzko estatu-legedian horrelako

jarduerak baimentzeko aurreikusita dagoen erregimena, baimenak emateko oinarri izango diren pleguak eta honako Ordenantza hau.

Itsasertz Mugarteak emandako baimenetan ezarritakoarekin bat etorrita mugatuko dira sasoiko zerbitzuak ustiatzeko espazioak.

Era bateko edo besteko instalazioen esleipena lortzen duten pertsonen kontura izango dira baimendutako jardueraren ondorioz sortutako gastu guztiak, zuzeneko edo zeharkako zergak, tasak eta kargak eta baita Kostaldeetako Zerbitzu Probintzialari (Gipuzkoa) ordaindu behar zaion kanona ere.

c) Gainerako urtaroetan

Egin ahal izango dira, prebentzio eta segurtasunezko neurriak hartuta eta bestelako jarduerak eragotzi gabe:

1. Motor gabeko ur-kirolak: hondartza osoan.
2. Itsasoan egin baina hondarretatik abiatu eta bertan bukatzen diren kirol-motak: hondartzaren ekialdeko gunean, itsasertzeko pasealekuaren bukaeratik aurrera.

**4.- AIRE-LUR-UR KIROLAK**

a) Udan

Ezingo dira egin haizeak mugiarazteko soka, aingura edo amarradurarik behar duten kirolak eta jarduerak, hala nola parapenteak, jausgailuak, kometak, etab.

Berariaz debekatuta dago motordun parapenteen hegala.

b) Gainerako urtaroetan

Motor gabeko ur-kirolak egin ahal izango dira, itsasorako sarrera eta irteera hondartzaren ekialdeko gunetik, itsasertzeko pasealekuaren bukaeratik aurrera, baldin eta prebentzio eta segurtasunezko neurriak hartzen badira eta bestelako jarduerak eragozten ez badira.

Debekatuta dago motordun parapenteen hegala.

**5.- ALDI BATERAKO APARTEKO JARDUERAK**

Hondartzan, aldi baterako aparteko jarduera edo instalaziotzat hartuko dira, jardueraren izaeraren arabera, noizbehinka egun eta gune jakin batzuetan egingo diren jarduera edo instalazioak.

Zarauzko hondartzan mota horretako edozein jarduera egin ahal izateko, betiere partikularrek antolatuta badute, udalaren baimen administratiboa beharko da,

Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzuaren edo aipatutako gai horretan eskumena duen beste administrazio baten baimena edukitzeari utzi gabe.

Aparteko kalifikazioa duen edozein jarduera egin nahi izanez gero, interesdunak eskabidea aurkeztu beharko du Udal Erregistroan, ekitaldia izango den eguna baino dezente lehenagotik (oro har, 21 egun natural)

Udalak berak antolatutako jarduera denean, arloko zinegotzi arduradunak Hirigintza, Obra, Proiektu, Zerbitzu eta Ingurumeneko Batzordeari jarduera ontzat emateko eskatu beharko dio.

Kasu guztietan, derrigorrezkoa izango da Ingurumeneko teknikariak eskabideari buruzko txostena egitea.

Nolanahi ere, aparteko jarduera egin baino lehen berme bat jarri beharko da gordailuz. Izan ere, hala badagokio, jarduerak sortutako garbiketa-lan apartekoak ordaintzeko edota hondatu izandako hondartzako materialak aldatu edo berritzeko behar besteko zenbatekoa izango du bermeak.

## **6. artikulua.- Arrantza.**

Uda partean, urazaleko kirol-arrantza bainu-ordutegitik kanpora egin ahal izango da.

1. Lurretik egiten den urazaleko jolas-arrantza, zaintza eta laguntza zerbitzuek bainurako edo beste edozein ur-kirol egiteko mugatzen dituzten guneeetatik 100 metrotik gorako distantziara egin ahal izango dira.
2. Ezingo da administrazioak baimendu gabeko arrantza-aparailu edo tresnarik erabili. Hondartzan debekatuta dago tresa, pantxera, amu, etab. bezalako arrantza-aparailurik jartzea.
3. Debekatuta dago erreserba biologikoetan, gebenlekuetan edo babes bereziko guneeetan arrantza egitea, arau ordenatzaileek hala diotenean.

Debekatuta dago urpeko arrantza moilan eta hondartza osoan.

## **7. artikulua- Moila.**

Zarauzko moila txikiaren berezitasunak direla medio, itsasgoran igerileku natural gisa erabili ohi dena, ontzirik atrakutzen ez duten iparraldeko gunean bainua egin daiteke. Hondartzarako ezarritako ordutegiak eta xedapenak beteko dira.

Segurtasunezko neurriak direla bide, ontziak amarratzeko gunean bainua debekatuta dago.

## **8. artikulua.- Animaliak.**

Debekatuta dago hondartzan edozein animalia egotea: etxeko animaliak, etxekotuak edota itxian hazitako animalia basatiak; bai eta horiek aske uztea ere.

Salbuespenez, urriaren 12tik Aste Santuaren hasiera arte, baimenduta dago hondartzan txakurrak egotea. Gainerako urtaroetan, hau da, Aste Santutik urriaren 12ra bitarte, baimenduta dago 21:00etatik 06:00etara txakurrak egotea.

Dena den, animaliak babesteko eta edukitzeko udal ordenantzak (1996ko otsailaren 22ko GAOOn -zk. 38- argitaratutakoa) eta ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoak (130 zk.), xedatzen dutena bete behar da.

Txakurrak egongo badira, jabeak kontrolatuta eramango ditu euren ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta -gehienez ere, 2 metrokoa-, eta haien utzitako kaka-hondarrak jabeak edo zaintzaileak jaso beharko ditu.

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak inolaz ere ez dira udan hondartzan ibiliko, ez eta inguruko zonetan ere (Iñurritzako biotopoa, desertu txikia, itsasertzeko pasealekua eta moila). Gainerako urtaroetan, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoan, jasotako neurriak betez ibili ahal izango dira.

## **9. artikulua- Toldoak.**

Toldoak Itsasertzeko pasealekuko malekoiarekiko paralelo jarriko dira, lerro bat eginez, N-634 errepide ondoko lehenengo eskailera paretik hasi eta duna ondoko azkeneko eskaileraraino. Pertsonen eta hondartzako zerbitzuetarako beharrezko diren ibilgailu zein makinariaren sarbiderako behar diren pasaguneak libre utziko dira.

Udalak finkatutako epealdian jarriko dira toldoak, Kosta Zerbitzuak ezarritako baldintzak bete eta gero.

Emandako baimenean zehaztutako egunerako kenduko dira.

Toldoak zabalik edukitzeko ordutegia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 19:30era izango da, marearen eraginak edo egoera klimatologikoak zerbitzuari kalte egingo diolako lehenagotik jaso behar direnean izan ezik.

Esleipendunak une oro hondartzako garbiketa eta salbamendu zerbitzuen premiak errespetatuko ditu, eta zeregin horietan diharduten pertsonen edo makinaren lana ez eragozten saiaturiko da.

Halaber, debekatuta dago zerbitzuaren kontzesiodunaren jabetzako material alokatua horretarako ezarritako orduetatik kanpora edo bestelako helburuetarako erabiltzea.

Erabiltzaileak toldora sartu ahal izateko, toldotik itsasorantz 3 metroko distantzia gordeko da.

Hondartzan toldoak eta karpak ustiatzeko Udalak baimendutako kontzesiodunaz aparte, ezingo ditu beste inork (pertsonek nahiz erakundeek) elementu horiek erabili.

Eguzkitakoak toldo-lerrotik 10 metroko distantziara jarriko dira.

Debekatuta dago hondartza osoan kanpadenda edo antzekorik jartzea, bai eta kanpamentu edo kanpaldirik egitea ere.

## **10. artikulua.- Garbiketa.**

Hondartza eta moila garbiketa, higiene eta osasun aldetik egoera onean edukiko dira.

Garbiketa-lanetarako makina eta erreminta egokiak erabiliko dira, gaikako zabor-bilketa egin ahal izateko eta hondar gehiegi ez jasotzeko.

Aldez aurretik ezarriko da uda parteko garbiketa-ordutegia, toldoak okupatutako gunean goizeko 11:00etarako bukatzen ahaleginduz.

Debekatuta dago hondakin solidoak, obra-hondakinak, araztu gabeko hondakin-urak bota edo isurtzea, bai eta ontzikiak, zaborrak eta zakarrak ere horretarako diren ontzietatik kanpora.

Oro har, garbiketaren, txukuntasunaren, ingurumenarekiko errespetuaren eta hondartzan sortzen diren hondakinen aprobetxamendu egokiaren aldetik baldintza egokiak lortzearen, ondoko arauak bete beharko dira:

Hondakin-isurketa:

- a) Zaborrak, hondarretan jarritako plastikozko poltsa berdeetan edo itsasertzeko pasealekuan dauden paperontzietan utziko dira.
- b) Ontzikiak (jogurt, tetrabrik, lata, plastikozko poltsa, etab.), hondarretan jarritako plastikozko poltsa horietan edo itsasertzeko pasealekuan dauden edukiontzi horietan utziko dira.
- c) Paper- eta kartoi-hondakinak, itsasertzeko pasealekuan dauden edukiontzi urdinetan utziko dira.
- d) Beira-hondakinak, itsasertzeko pasealekuan dauden edukiontzi berdeetan utziko dira.



- e) Fruitu lehorren azalak eta zigarrokinak hondartzako hondarretan botatzea salaketa-gai izango da.
- f) Gaikako zabor-bilketarako edukiontzietan eta paperontzietan bakoitzari dagozkion hondakinak bakarrik sartuko dira, eta ez bestelakorik.

Debekatuta dago:

- a) Itsasertzeko pasealekuaren ertzean dauden dutxa publikoetan xaboirik edo garbitzeko jelerik erabiltzea.
- b) Beladoreak garbitzean sortutako hondakinak hondartzara botatzea.
- c) Hondartzako eta itsasertzeko pasealekuko gune publikoetan pixa egitea edo libratzea.

### **11. artikulua.- Eskaerak.**

Hondartzan kultur, kirol edo jolas-gertaerarik antolatu nahi duten erakundeek aldeztatik Udalaren bidezko baimena lortu beharko dute.

### **12. artikulua- Bestelako xedapenak.**

Halaber, debekatuta dago hondartzan:

- a) Hondartzarako pasagune eta sarbideetan aulki, banku edo zirkulazioa eragozten duten bestelako elementurik jartzea, bai eta pasaguneetan etzan edo gelditzea ere.
- b) Derrigorrez edozein su-mota (suarka edo su txiki, kanpin-gas, etab.) erabiltzea eskatzen duten janariak prestatzea.
- c) Hondartzan bazkaltzeko mahai edo antzekorik muntatzea.
- d) Sua egitea; parrilla, barbakoa edo antzekorik erabiltzea.
- e) Hondartza gaua igartzeko erabiltzea; halaber, ordenamenduaren nahasmendua ekarriko duen bilera, jai edo ekintzarik antolatzea.
- f) Edozein ibilgailu-mota hondartzan aparkatu, jaitsi edo ibiltzea, baimendutako zerbitzuak (salbamendu, sorospen, garbiketa, etab.) izan ezik.
- g) Megafono, transistore, disko-jogailu edo antzekorik erabiltzea, ez eta bestelako igorgailurik ere, hondartzako zerbitzuek erabilitakoak izan ezik, horien

entzute-bolumenak inguruan dauden pertsonen eragozpenik sortzen dizkienean.

- h) Hondarra eramatea.
- i) Kartel edo panel bidez edo soinu nahiz ikus-entzunezko baliabidez egindako publizitatea, bai eta airetik egindakoa ere.
- j) Salmenta ibiltari oro hondartza osoan, Udalak emandako bidezko baimena ez badu.
- k) Hondartzako erabiltzaileen kontrako, hondartza-zerbitzuko langileen eta materialaren kontrako, edo Udalak baimendutako kontzesiodunen kontrako ekintza bortitz edo probokatzailerak.

### **13. artikulua.- Polizia-lanak hondartzan**

Udal agintaritzak edo udaltzainek, eta baita udako errefortzuko langileek ere, ahoz eta/edo idatziz ohartarazi ahalko dituzte Ordenantza honetako edozein arau urratzen ari direnak, berehala utz diezaioten debekatutako jarduera egiteari edo dagokiona egin dezaten. Eta hori guztia, dagokion zigor-espedienteari hasiera emateari utzi gabe edo, hala badagokio, dagokion administraziora salaketa-partea bidaltzeari utzi gabe.

Salbamenduko edo sorospeneke langileek lagundu egingo diete Ordenantza honetan ezarritakoari buruzko informazio-lanetan, batez ere Ordenantzaren arau-hausteen berri emanez.

### **14. artikulua- Zigor-araubidea.**

Udaltzainak eta hondartzako zerbitzuko (salbamendu eta garbiketa) langileak bereziki arduratuko dira ordenantza honetan jasotako xedapenak zehatz-mehatz betearazteaz.

Ordenantza honen arau-hausleak zigortuak izango dira, alkatetzak edo zinegotzi-ordezkariek ezarritako isunen bidez, oraingo nahiz geroko legeriak jarritako mugen barnean.

**1.-** Honako hauek xedatutakoak arautuko du Udal honen zigortzeko ahalmena: azaroaren 26ko 30/92 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatutakoa), IX. tituluan; otsailaren 20ko 2/1998 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa); uztailaren 28ko 22/1988 Legeak (Itsasertzei buruzkoa) eta beronen Erregelamenduak (abenduarien 1eko 1471/1989 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa), edota horien ordezkoko araudiak; bai eta Ordenantza honetan ezarritakoak ere.

2.- Udalaren aldetik, alkateari dagokio zigor-espedienteen hasiera edo instrukzioa agintzeko eta bidezko zigorrak ezartzeko eskumena.

3.- Ordenantza honetan azaltzen diren aginduak ez betetzearen ondoriozko arau-hauste administratiboak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

a) Arau-hauste arina. Ondorengo hauek izango dira arau-hauste arinak:

a.1) Bainuak:

- Bainurako 4. artikuluan jasotzen diren seinaleak ez errespetatzea.

a.2) Lurreko kirolak:

- Hondarretan, itsasertzeko pasealekuaren ertzetik lehenengo 30 metroetan kirola egitea.
- Itsasgoran, hondartza osoan kirola egitea.
- Soka, aingura edo beste edozein motatako amarradurarik behar duten kirolak egitea, bai eta trakzio mekanikozko edo gurtaberezko kirolak ere.

a.3) Ur-kirolak uda garaian :

- Oro har bete beharrekoak diren obligazioak ez betetzea.
- Baimanduta daudenak baino pertsona gehiagok parte hartzea ikastaroan.

a.4) Moila:

- Ordenantza honen 7. artikuluan xedatutakoa bete gabe bainatzea.

a.5) Toldoak eta eguzkitakoak:

- Eguzkitakoak toldo-lerrotik 10 metrotik beherako distantziara jartzea.
- Hondartzan edo itsasertzeko pasealekuan kanpadenda edo antzekorik jartzea.

a.6) Garbiketa:

- Hondakin solidoak, obra-hondakinak, bai eta ontzikiak, zaborrak eta zakarrak ere bota edo isurtzea gaikako zabor-bilketarako jarrita dauden paperontzi edo ontzietatik kanpora.
- Itsasertzeko pasealekuaren ertzean dauden dutxa publikoetan xaboia edo garbitzeko jela erabiltzea.
- Hondartzako eta itsasertzeko pasealekuko gune publikoetan pixa egitea edo libratzea.

a.7) Ingurumena eta bestelakoak:

- Hondartzarako pasagune eta sarbideetan aulki, banku edo zirkulazioa eragozten duten bestelako elementurik jartzea, bai eta pasealekuetan etzan edo gelditzea ere.
- Derrigorrez edozein su-mota (suarka edo su txiki, kanpin-gas, etab.) erabiltzea eskatzen duten janariak prestatzea.
- Hondartzan bazkaltzeko mahai edo antzekorik muntatzea.
- Sua egitea; parrilla, barbakoa edo antzekorik erabiltzea.
- Hondartza gaua igarotzeko erabiltzea; halaber, ordenamenduaren nahasmendua ekarriko duten bilera, jai edo ekintzak antolatzea.
- Megafono, transistore, disko-jogailu edo antzekoak erabiltzea, bai eta bestelako igorgailuak ere, hondartzako zerbitzuek erabilitakoak izan ezik, horien entzute-bolumenak inguruan dauden pertsonen eragozpenik sortzen dizkienean.
- Hondarra eramatea, kantitateagatik arau-hauste larria edo oso larria ez denean.
- Kartel edo panel bidez edo soinu nahiz ikus-entzunezko baliabidez egindako publizitatea, bai eta airetik egindakoa ere.
- Artikulu honetan jaso ez den Ordenantza honetako beste edozein prebisio ez betetzea: pertsonen, ondasunen eta ingurumenari garrantzi txikiko arrisku edo kalteak eragiten zaizkienean.

b) Arau-hauste larria. Ondorengo hauek izango dira arau-hauste larriak:

b.1) Lurreko kirolak:

- Golfean edo antzekotan jardutea, edo jaurtiketa-jarduerak (barra, xabalina, diskoa, etab.) egitea.
- Trakzio mekanikozko edo gurtaberezko kirolak, zaldizko kirolak eta motordunak (motorrak, quad, autoak...) egitea.

b.2) Ur-kirolak:

- Mugatutako guneetatik kanpora surf, bodyboard eta piraguismo kirolak egitea.
- Balizatutako guneetan nabigatzea edozein motatako beladun edo motordun ontzi edo flotatzaile erabiliz; hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuekin zerikusituta izan ezik.
- Marea-lerrotik 200 metrotik beherako distantziara trakzio mekanikozko edo haize-trakziozko elementurik behar duen edozein kirol-mota egitea, bai eta bertsio desberdinetako (moto, eski, bela, arraun, etab.) itsasontziak erabiltzea ere.
- Itsasoan egin baina hondarretatik abiatu eta bertan bukatzen diren kirol-motak (windsurf, eski-surf, ...) hondartzaren ekialdeko muturretik kanpora edo hondartzan egitea: zaintza zerbitzueko bainu-ordutegiaren

barruan, itsasertzeko pasealekuaren bukaeratik 200 metro baino hurbilago, edo marea-lerrotik 200 metrotik beherako distantziara.

- Kirol-eskolak:
  - a) Zerbitzua bera hobetze aldera edo zerbitzuko akatsak zuzentze aldera, Udalak emandako jarraibideak betetzerakoan atzeratzea.
  - b) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea
  - c) Esleipena egiten denetik hitzartutako epean zerbitzua martxan ez jartzea. Atzeratutako bi eguneko, akats larri bat egin dela ulertuko da
  - d) Hondartzako salbamenduko arduradunek, Kostaldeetako Administrazioak, Udaltzaingoak edo udal zerbitzuek emandako jarraibideei behin eta berriz kasurik ez egitea.
  - e) Norberarenak ez diren beste baimenei esleitutako lekuak okupatzea.
  - f) Baimendutako gunea bi ikaslek edo gehiagok ez erabiltzea, 5 egunetan, baldin eta hori hirugarrengoren baten kalterako bada.

b.3) Aire-lur-itsasoko kirolak:

- Uda partean haizeak mugiarazteko soka, aingura edo amarradurarik behar duten kirolak eta jarduerak egitea.
- Motordun parapenteen hegal egitea.

b.4) Ingurumena:

- Araztu gabeko hondakin-urak edo beste edozein substantzia, hondakin edo materia bota edo isurtzea, ingurumenari buruz indarrean dagoen araudian horrela kalifikatuta baldin badago.
- Beladoreak garbitzean sortutako hondakinak hondartzara botatzea.

b.5) Datuak ez aipatzea edo eskatutakoak ez aurkeztea.

b.6) Artikulu honetan jaso ez arren, Ordenantza honetako beste edozein prebisio ez betetzea: pertsonen, ondasunen eta ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten zaizkienean; bai eta urtebeteko epean bi arau-hauste arin baino gehiago egitea ere.

b.7) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea. Arau-haustea behin eta berriro egin dela ulertuko da, baldin arau-hauslea bi aldiz baino gehiagotan zigortua izan bada arau-hauste arin bat egiteagatik.

c) Arau-hauste oso larria:

c.1) Araztu gabeko hondakin-urak edo beste edozein substantzia, hondakin edo materia bota edo isurtzea, ingurumenari buruz indarrean dagoen araudian horrela kalifikatuta baldin badago.

- c.2) Artikulu honetan jaso ez arren, Ordenantza honetako beste edozein prebisio ez betetzea: pertsoneri, ondasunei eta ingurumenari arrisku edo kalte oso larriak eragiten zaizkienean; bai eta urtebeteko epean bi arau-hauste larri baino gehiago egitea ere.
- c.3) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea. Arau-haustea behin eta berriro egin dela ulertuko da, baldin arau-hauslea bi aldiz baino gehiagotan zigortua izan bada arau-hauste larri bat egiteagatik.
- c.4) Kirol-eskolak:
- Surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatu ahal izateko nahitaez eduki beharreko baimena ez edukitzea
  - Emakidaren xedea eta bertan ezarritako mugak ez errespetatzea
  - Zerbitzua zuzenean berak ez ematea, beste bati laga edo eskualdatu diolako
  - Erantzukizun zibileko aseguruaren primak ordaindu gabe izatea
  - Udalak emandako aginduak ez betetzea edo horiei eragozpenak jartzea, baldin agindu horiek zerbitzuari buruzkoak badira eta baimena arautzen duten agirietan aurreikusita badaud
  - Trebakuntza ikastaroak prestatu gabeko langileekin ematea; eta, horrenbestez, titulazioetan eskatutako baldintzak ez betetzea
  - Kontratuari atxikitako langileen gizarte segurantzako ordainketetan egunean ez egotea.
  - Aurkeztutako dokumentazioan datu faltsuak ematea.
  - Lan-betebeharrak, segurtasun eta osasun arlokoak eta lan-arriskuen prenbeztiorako betebeharrak ez betetzea.

5.- Aurreko atalean xedatutakoa kontuan hartu gabe, arau-haustek arintzat, larritzat eta oso larritzat sailkatzeko, eragin zitezkeen edo eragin diren kalteak ekonomikoki balora daitezkeen kasuetan, honako irizpide hauek jarraituko dira:

- a) 60.000 eurotik gorako kalteak egoteko arriskua (izan daitezkeen kalteak) edo izandako kalteak: arau-haustea oso larritzat sailkatuko da.
- b) 30.000 eurotik eta 60.000 eurora arteko kalteak egoteko arriskua (izan daitezkeen kalteak) edo izandako kalteak: arau-haustea larritzat sailkatuko da.
- c) 30.000 euro edo gutxiagoko kalteak egoteko arriskua (izan daitezkeen kalteak) edo izandako kalteak: arau-haustea arintzat sailkatuko da.

6.- Halaber eta 4. atalean xedatutakoa kontuan hartu gabe, eragin den larrialdia edo egindako kaltea ekonomikoki ebaluatzea ezinezkoa den kasuetan, Udalak bidezko txostenak eska ditzake, zigor-espedientearen bitartez, egoera berriak ondorio oso larriak, larriak edo arinak eragin dituen jakiteko.

7.- Ordenantza honetako aginduen arau-haustek, hurrengo atalean xedatutakoa izan ezik, eta lehenbizi aplikatu beharreko sektore-legerian bestelakorik ezartzen bada izan ezik, jarraian aipatzen diren moduan zigortuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: abisua eta 300 arteko isuna.
- b) Arau-hauste larriak: 301-6.000 euro arteko isuna.
- c) Arau-hauste oso larriak: 6.001-15.000 euro arteko isuna, hala badagokio aplikatu beharreko araudi espezifikoren arabera zigor handiagoak ezartzeko bestelako erakundeek duten eskumena kontuan hartu gabe.

Arrantza arloko arau-haustek: arrantza arloan une oro indarrean dagoen araudian ezarritako araubidearen arabera ezarritakoak eta zigortutakoak izango dira.

Animalia arloko arau-haustek: animaliak babesteko eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko arloan une oro indarrean dagoen araudian eta Zarautzen animaliak babesteko eta edukitzeko udal ordenantzan ezarritako araubidearen arabera ezarritakoak eta zigortutakoak izango dira.

Udaleko alkatetzak edo zinegotzi-ordezkariak zigortuko dituzte arau-haustek.

8.- Zigorrak zehazterakoan, kontuan hartuko dira bai arau-hausteen erruduntasun-maila bai arau-hauste administratiboa egiterakoan aringarri edo astungarri gertatu diren gainerako alderdiak, batez ere honako hauek:

- a) Partikularrei edo zerbitzu publikoei sortutako kalteak eta horien izaera, eta arau-haustek gizartean izan duen eragina.
- b) Nahita eta behin baino gehiagotan egina izan den ala ez.

9.- Ordenantza honetan tipifikatutako ekintza edo omisioetan, doloz, erruz edo utzikieriaz jokatzeko duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira erantzule.

## **15. artikulua.- Preskripzioa.**

1. Arau-haustek eta zigorrak preskribitzeko epeak ondoko hauek izango dira:

- a) Arau-haustek:
  - Oso larriak: hiru urtera.
  - Larriak: bi urtera.
  - Arinak: sei hilabetera.

b) Zigorak:

- Arau-hauste oso larriak: hiru urtera.
- Arau-hauste larriak: bi urtera.
- Arau-hauste arinak: urtebetera.

2. Arau-haustea egin den egunaren biharamunean hasiko da arau-haustea preskribitzeko epea. Jarraian egin diren arau-hausteen kasuetan, arau-haustearen azken gertakaria burutu den egunetik aurrera kontatuko da epea edo legez kontrako egoera bukatu denetik aurrera.

3. Zigorra ezartzen duen ebazpena administratibo-bidean irmo bihurtzen den egunaren biharamunean bertan hasiko da kontatzen zigorraren preskripzio-epea.